

KONPETENTZIA PERTSONALA, SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOAK (KPSII)

Konpetentzia pertsonala, soziala eta ikasten ikastekoak berekin dakar nor bere buruari buruz hausnartzeko gaitasuna, nor bere burua ezagutzeko, bere burua onartzeko eta etengabeko hazkunde pertsonala sustatzeko; denbora eta informazioa eraginkortasunez kudeatzeko; beste batzuekin modu eraikitzailean lankidetzan aritzeko; erresilientziari eusteko; eta bizialdi osoko ikaskuntza kudeatzeko. Honako hauek ere sartzen dira: ziurgabetasunari eta konplexutasunari aurre egiteko gaitasuna; aldaketetara egokitzea; prozesu metakognitiboak kudeatzen ikastea; bizikidetzaren aurkako jokabideak identifikatzea eta horiei aurre egiteko estrategiak garatzea; norberaren eta gainerako pertsonen ongizate fisiko, mental eta emozionalari laguntzea, nor bere burua eta ingurukoak zaintzeko trebetasunak garatuz erantzukidetasunaren bidez; etorkizunera bideratutako bitzita bat eramateko gai izatea; enpatia adieraztea eta gazteki heltzea.

ONARRIZKO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEA...

BATXILERGO IRAKASKUNTZA OSATZEAN, IKASLEAK...

<p>KPSII 1. Bere emozioak erregulatzen eta adierazten ditu, eta, horretarako, baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta ikasteko asmoa eta motibazioa bilatzen ditu, edozein testuingurutan sortzen diren erronkak eta aldaketak modu konstruktiboan kudeatuz eta bere helburuekin harmonizatuz.</p>	<p>KPSII 1.1 Baikortasuna, erresilientzia, autoeraginkortasuna eta helburuen bilaketa modu autonomoan indartzen ditu, ikaskuntza eraginkorra izan dadin.</p> <p>KPSII 1.2 Nortasun autonomoa garatzen du, eta aldaketak, parte-hartze soziala eta bere jarduera propioa modu konstruktiboan kudeatzen ditu bere bitzita zuzentzeko..</p>
<p>KPSII 2. Faktore sozialekin lotutako osasunerako arriskuak ezagutzen ditu, maila fisikoan eta mentalean bizi-ohitura osasungarriak finkatzeko, eta ikaskuntza sustatzen eta oztopatzen duten baldintza pertsonalak eta inguruneak identifikatzen ditu.</p>	<p>KPSII 2. Bizimodu jasangarria modu autonomoan hartzen du eta norberaren eta besteen ongizate fisiko eta mentalari erantzuten dio, gizartean mundu osasuntsuago bat eraikitzeko laguntza bilatuz eta eskainiz.</p>
<p>KPSII 3. Besteen ikuspegiak eta esperientziak modu proaktiboan ulertzen ditu, eta ikaskuntzan txertatzen ditu, talde-lanean parte hartzeko, zereginak eta erantzukizunak modu ekitatiboan banatuz eta onartuz eta estrategia kooperatiboak erabiliz.</p>	<p>KPSII 3.1 Besteen emozioekiko eta esperientziekiko sentsibilitatea erakusten du, eta taldeak pertsonengan duen eraginaz jabetzen da, nortasun enpatiko eta independentea sendotzeko eta bere adimen emozionala garatzeko.</p> <p>KPSII 3.2 Zereginak, baliabideak eta erantzukizunak modu orekatuan banatzen ditu talde batean, helburuen arabera, eta ikuspegi sistemikoa bultzatzen du, helburu partekatuek lortzen laguntzeko.</p>
<p>KPSII 4. Bere ikaskuntza-prozesuari buruzko autoebaluazioak egiten ditu, informazioa baliozkotzeko, sostengatzeko eta kontrastatzeko eta ondorio garrantzitsuak ateratzeko iturri fidagarriak bilatuz.</p>	<p>KPSII 4. Hainbat iturritatik datozen datuak, informazioa eta ideiak alderatu, aztertu, ebaluatu eta laburbiltzen ditu, ondorio logikoak modu autonomoan lortzeko eta horien fidagarritasuna baloratzeko.</p>
<p>KPSII 5. Epe ertainerako helburuak planifikatzen ditu eta atzeraelikadurako prozesu meta-kognitiboak garatzen ditu, ezagutza eraikitzeko prozesuan dituen akatsetatik ikasteko.</p>	<p>KPSII 5. Epe luzera, ezagutza eraikitzeko helburuak eta prozesuak planifikatzen ditu, eta ezagutzaren eremuak erlazionatzen ditu, ezagutza hori transmititzeko, ideia sortzaileak proposatzeko eta arazoak autonomiaz ebazteko aukera emango dioten ikaskuntza-prozesu autoerregulatuak garatzeko.</p>